

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 2008/51/EE ZUZENTARAUUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko maiatzaren 21ekoa, Kontseiluaren 91/477/EEE Zuzentaraua —armak eskuratu eta edukitzeari buruzkoa— aldatzen duena.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2008/51/CE DEL PARLAMENTO Y DEL CONSEJO EUROPEO, de 21 de mayo de 2008, por la que se modifica la Directiva 91/477/CEE del Consejo sobre el control de la adquisición y tenencia de armas» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 179/5, 2008/7/8koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ZUZENTARAUAK

2008/51/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2008ko maiatzaren 21ekoa

Kontseiluaren 91/477/EEE Zuzentaraua —armak eskuratu eta edukitzeari buruzkoa— aldatzen duena

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 95. artikuluko 1. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena ⁽²⁾ aztertu dute,

Tratatuko 251. artikuluan finkatutako prozedura ⁽³⁾ bete dute,

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) 91/477/EEE Zuzentaraua ⁽³⁾ barne-merkatuari laguntzeko neurria izan da.

Suzko arma batzuk Erkidego barruan zirkulatzeko nolabaiteko askatasuna, batetik, eta askatasun hori halako produktueterako egokitutako segurtasun-berme batzuekin mugatzeko beharra, bestetik, uztartzen ditu.

(2) Kontseiluaren 2001/748/EE Erabakiari —2001eko urriaren 16koa, Nazio Batuen nazioz gaindiko delinkuentzia antolatua aurkako Hitzarmenari atxikitako suzko armen eta haien zati, osagai eta munizioen fabrikazio eta trafiko bidegabearen aurkako borrokari buruzko Protokoloa Europako Erkidegoaren izenean sinatzeari buruzkoa ⁽⁴⁾— jarraiki, Batzordeak Protokolo hori (aurrerantzean «Protokoloa») sinatu zuen Erkidegoaren izenean, 2002ko urtarrilaren 16an.

(3) Erkidegoak Protokoloarekin bat egiteko, aldatu egin behar dira 91/477/EEE Zuzentarauro zenbait alderdi, Zuzentarau horren gainean eragina duten nazioarteko konpromisoak modu koherente, eraginkor eta azkarrean aplikatzen direla ziurtatzearen. Era berean, komeni da aprobetxatzea berrikusketa honek alderdi jakin batzuei heltzeko eta Zuzentaraua hobetzeko eskaintzen digun aukera, bereziki, 91/477/EEE Zuzentarauren aplikazioari buruz Batzordeak 2000ko abenduaren 15ean Europako Parlamentuari eta Kontseiluari aurkeztutako txostenean azaldutako alderdiei heltzekoa.

(4) Inteligentzia-zerbitzuek adierazi dutenez, eraldatutako armak gero eta gehiago erabiltzen dira Erkidegoan. Hori ikusita, arma eraldagarriak «suzko armen» barruan sailkatu beharra dago, 91/477/EEE Zuzentarauren ondorioei dagokienez.

(5) Suzko armak eta haien zati eta munizioak beste herrialde batzuetatik inportatzen direnean, arma horiek EBko legedia bete beharko dute, eta legedia horren barruan 91/477/EEE Zuzentarauro xedapenak, ondorioz.

(1) C 318 EO, 2006/12/23koa, 83. or.

(2) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko apirilaren 29koa (*Egunkari Ofizialean* oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko apirilaren 17koa.

(3) L 256 EO, 1991/09/13koa, 51. or. Akatsen zuzenketa, in L 54 EO, 1993/03/05ekoa, 22. or.

(4) L 280 EO, 2001/10/24koa, 5. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(6) Hori dela eta, 91/477/EEE Zuzentarauaren ondorioetarako, zehaztu beharra dago *suzko armen eta haien pieza eta munizioen fabrikazio eta trafiko bidegabea eta lokalizazioa* zer diren.

(7) Bestalde, armak markatu egin behar direla agintzen du Protokoloak: fabrikatzen direnean eta estatuaren izakinetatik erabilera zibil iraunkorrera igarotzen direnean. 91/477/EEE Zuzentarauak, aldiz, armak markatu egin behar direla esaten du bakarrik, zeharka gainera.

Armen lokalizazioa zehazten laguntzeko, kode alfanumeriko batzuk erabili eta arma fabrikatzeko urtea jarri behar da armetan (serie-zenbakian urtea dagoeneko agertzen ez bada). Suzko arma eramangarrietarako probako puntzoiaren elkarren onarpenerako Hitzarmenak (1969ko uztailaren lekua) izan behar du, ahal den bezainbatean, erreferentziazko markatze-sistema Erkidego osoan.

(8) Era berean, Protokoloan armei buruzko informazio-erregistroak gutxienez hamar urtean gorde behar direla esaten bada ere, armen iraupen eta arriskua kontuan hartuta, epe hori gutxienez hogeitaz hamar urtera luzatzea komeni da, suzko armak lokalizatzearen. Horrekin batera, estatu kideek datu-fitxategi informatizatu bat —sistema zentralizatu nahiz deszentralizatu— eratu behar dute, eskumeneko agintariek sarbidea izan dezaten suzko arma bakoitzari buruzko informazioa gordetzen duen datu-fitxategi informatizaturako. Agintari polizial eta judizialek eta eskumeneko beste agintari batzuek, datu-fitxategi informatizatuan jasotako informazioa eskuratzeko garaian, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmeneko 8. artikulua bete beharko dute.

(9) Gainera, Protokoloko 15. artikuluan aipatzen diren artekarien jarduerak eta artekaritza-jarduerak ere zehaztu egin behar dira 91/477/EEE Zuzentarauaren ondorioetarako.

(10) Zenbait kasu larritan, Protokoloko 5. eta 6. artikulua betetzeko, zigorrak jarri eta armak konfiskatu beharko dira.

(11) Suzko armak erabilezin bihurtzeari dagokionez, 91/477/EEE Zuzentarauko I. eranskineko III. zatiko a) idatz-zatian herrialde bakoitzeko zuzenbidera jo behar dela besterik ez da esaten. Protokoloan, aldiz, armak erabilezin bihurtzeko printzipio orokor zehatzagoak finkatzen dira. Hori dela eta, aldatu beharra dago 91/477/EEE Zuzentarauko I. eranskina.

(12) Armazainen jardueren berezitasuna dela eta, komeni da jarduera horiek zorrozki kontrolatzea, eta armazainen zintzotasuna eta gaitasuna egiaztatzea beharko dira bereziki.

(13) Partikularrek, baimendutako kasuetan, suzko armak urruneko komunikazio-teknikak erabiliz (Internet bidez, adibidez) eskuratuz gero, 91/477/EEE Zuzentaruaren finkatutako arauak bete beharko dituzte eta delitu penal larriengatik zigor irmoak dituzten pertsonen suzko armak eskuratzea galarazi beharko zaie.

(14) Europako suzko armen txartelak ondo funtzionatzen du, oro har, eta ehiztariak eta kirol-tiratzaileak beste estatu kide batera doazenean suzko arma bat edukitzeko eraman beharreko agiri nagusia izan behar du txartel horrek. Estatu kideek ezin dute kanonik edo tasarik kobratu Europako suzko armen txartela onartzeko.

(15) Suzko armak lokalizatzen lagundu eta suzko armen eta haien pieza eta munizioen fabrikazio eta trafiko bidegabearen aurka borrokatzeko, hobetu beharra dago estatu kideen arteko informazio-trukaketa.

(16) Informazioa erabiltzeko garaian, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 95/46/EE Zuzentaruak — 1995eko urriaren 24koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datuon zirkulazio libreaki dagokionez pertsona fisikoak

2008/51/EE Zuzentaruak (EBren Egunkari Ofiziala, L 179/5, 2008/7/8koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

babesteari buruzkoa ⁽¹⁾— bete beharko da, eta ezin izango da pertsona fisikoen babes-maila gutxitu, Erkidegoko nahiz herrialde bakoitzeko zuzenbidearekin bat etorritz datu pertsonalak tratatzen direnean, ez eta 95/46/EE Zuzentarauan finkatutako betebeharrak eta eskubideak urratu ere.

(17) 91/477/EEE Zuzentzara betearazteko behar diren neurriak onartu behar dira Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiarekin —1999ko ekainaren 28koa, Batzordeari dagozkion eskumenak gauzatzeko prozedurak finkatzen dituen ⁽²⁾— bat etorritz.

(18) Estatu kide batzuek suzko armen sailkapena sinplifikatu egin dute, eta lau kategoria beharrean bi bereizten dituzte orain: suzko arma debekatuak eta baimena behar duten suzko armak. Estatu kideek sailkapen sinplifikatua onartu behar dute uniformeki; dena den, subsidiarotasun-printzipioari jarraiki, sailkapen hori beste kategoria batzuetan zatitzen duten estatuak beren sailkapen horri eustea ere izango dute.

(19) Suzko armak eskuratzeko eta edukitzeko baimenek administrazio-erabaki bakar bati lotuta egon behar dute, ahal dela.

(20) 91/477/EEE Zuzentzara 2. artikuluko 2. paragrafoak Zuzentzara horren aplikazio-eremutik kanpo uzten ditu honako hauek, besteak beste: arma-bildumagileak eta armekin lan egiten duten kultura eta historia arloko erakundeak (finkatuta dauden herrialdeetan halakotzat onartuta egon behar dute) beren herrialdeko zuzenbidearekin bat etorritz eskuratzeko eta edukitzeko armak.

(21) «Legeak hobeto ematea» izenburuko Erakunde arteko Hitzarmeneko ⁽³⁾ 34. puntuari jarriki, ahal den neurrian, Zuzentzara honen eta transposizio-neurrien arteko bat-etortzea jasotzen duten koadroak finkatu eta argitaratu behar ditu estatu kide bakoitzak, bere nahiz Erkidego osoaren mesederako.

(22) 91/477/EEE Zuzentzara aldatu beharra dago, horrenbestez.

ZUZENTZARA HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

91/477/EEE Zuzentzara egindako aldaketak

91/477/EEE Zuzentzara honela aldatu da:

1) 1. artikulua honela aldatu da:

a) 1. paragrafoaren ordez testu hau jarri da:

«1. Zuzentzara honen ondorioetarako, hau hartuko da «suzko armatzat»: kanoia izanik, erregai bultzatzaile baten eraginez, perdigoiak, balak nahiz jaurtigaiak botatzen dituzten, botatzeko prestatuta dauden edo botatzeko erraz eralda daitezkeen arma eramangarri guztiak, I. eranskineko III. zatian aipatutako arrazoi-tako batengatik salbuetsitakoak izan ezik. Suzko armak I. eranskineko II. zatian daude sailkatuta.

(1) EO L 280, 2001/10/24koa, 5. or. Azkenik 1792/2006 (EE) Erregelamenduak aldatutako Erabakia (EO L 362, 2006/12/20koa, 1. or.).

(2) EO L 184, 1999/07/17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak aldatutako Erabakia (EO L 200, 2006/07/22koa, 11. or.).

(3) EO C 321, 2003/12/31koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Zuzentarau honen ondorioetarako, hauek hartzen dira erregai bultzatzaile baten eraginez, perdigoiak, balak nahiz jaurtigaiak botatzeko eraldatu daitekeen objektutzat: suzko armaren itxura izanik, fabrikatzeko erabilitako materialaren nahiz eratuta dauden moduaren ondorioz, suzko arma gisa eralda daitezkeenak.»;

b) paragrafo hauek gehitu dira:

«1 *bis*. Zuzentarau honen ondorioetarako, hauek hartzen dira «piezatzat»: suzko arma baterako berariaz pentsatutako eta hura funtzionatzeko ezinbestekoa den edozein elementu edo ordezeko elementu, kanoia, kutxa edo kaxa, morroilo edo danborra, itxitura edo itxitura-blokea, suzko armen tiro-hotsa gutxitzeko pentsatutako edo egokitutako gailu guztiak barne.

1 *ter*. Zuzentarau honen ondorioetarako, hauek hartuko dira «funtsezko osagaitzat»: suzko armen itxitura-mekanismoa, errekamara eta kanoia. Osagai horiek, objektu bereizitatzat hartuta, sailkatuko dira muntatzen diren edo muntatuko diren suzko armen kategoria berean.

1 *quater*. Zuzentarau honen ondorioetarako, hau hartuko da «muniziotzat»: suzko arma batean erabilitako kartutxo osoa eta bere osagaiak, zorroa, almetxakoa, karga bultzatzailea, balak nahiz jaurtigaiak, dagokion Estatu kidean baimenduta baldin badaude.

1 *quinqües*. Zuzentarau honen ondorioetarako, hau hartuko da «lokalizaziotzat»: suzko armen eta, ahal dela, arma horien pieza eta munizioen arrastoa fabrikatzailearengandik eroslearengana sistematikoki jarraitzea, estatu kideetako eskumeneko agintariei fabrikazio eta trafiko bidegabeba hauteman, ikertu eta aztertzen laguntzeko.

1 *sexies*. Zuzentarau honen ondorioetarako, hau hartuko da «artekaritzat»: lanbidetzat armak saltzea, erostea edo transferentzia antolatzea duen armazainaz bestelako edozein pertsona fisiko nahiz juridiko.»;

c) 2. paragrafoaren ordez testu hau jarri da:

«2. Zuzentarau honen ondorioetarako, hau hartuko da «armazaintzat»: lanbidetzat suzko armak, piezak eta munizioak fabrikatzea, salerostea, aldatzea, alokatzea, konpontzea edo eraldatzea duen edozein pertsona fisiko nahiz juridiko.

d) paragrafo hauek gehitu dira:

«2 *bis*. Zuzentarau honen ondorioetarako, hau hartzen da «fabrikazio bidegabetzat»: suzko armak eta haien pieza eta munizioak fabrikatu edo muntatzea:

i) trafiko bidegabean erabili diren suzko arma horien funtsezko osagaietatik abiatuta,

ii) 4. artikuluan agindutako moduan, fabrikazioa edo muntaketa egin den Estatu kideko eskumeneko agintariaren baimenik gabe, edo

iii) 4. artikuluko 1. paragrafoarekin bat etorritz, mihiztatutako suzko armak fabrikatzerakoan markatu gabe.

2 *ter*. Zuzentarau honen ondorioetarako, hau hartzen da «trafiko bidegabetzat»: suzko armak eta haien pieza eta munizioak eskuratzea, saltzea, inori ematea, leku batetik bestera eramatea nahiz transferitzea, Estatu kide batetik beste batera, estatu kide horietako batek Zuzentarau honekin bat etorritz baimentzen ez badu edo mihiztatutako su armak ez badira 4. artikuluko 1. paragrafoarekin bat etorritz markatu.»;

e) 4. paragrafoaren ordez testu hau jarri da:

«4. «Europako suzko armen txartela» emango diete estatu kideetako agintariek, dagokion eskaera egin eta gero, legez suzko arma baten titular eta erabiltzaile bihurtzen direnei. Gehienez bost urterako balioko du txartelak. Epe hori luzatu ahal izango da, eta II. eranskinean finkatutako xehetasunak zehaztu beharko dira txartelean. Europako

2008/51/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 179/5, 2008/7/8koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

suzko armen txartela besterenezina izango da, eta txartelaren titularrak dauzkan eta erabiltzen dituen suzko arma guztiak zehaztu beharko dira bertan.

Suzko armen erabiltzaileek aldean eraman beharko dute txartela uneoro. Txartelean adierazi beharko dira suzko armaren ukantzan nahiz ezaugarrietan egondako aldaketa guztiak eta armaren galerak eta lapurretak.»

2) 4. artikulua ordez testu hau jarri da:

«4. artikulua

1. Estatu kideek ziurtatu beharko dute merkaturatzen diren suzko arma eta funtsezko osagai guztiak Zuzentarau honekin bat etorri markatu eta erregistratzen direla edo, bestela, erabilezin bihurtzen direla.

2. Mihiztatutako suzko armak identifikatu eta lokalizatzearren, estatu kideek hau egin beharko dute suzko armak fabrikatzean:

a) marka bereizgarri bat jartzeko eskatuko dute, fabrikatzailearen izena, herrialdea edo fabrikazio-lekua, serie-zenbakia eta fabrikazio-urtea (serie-zenbakian agertzen ez bada) zehaztuz. Horrez gain, fabrikatzaileak bere marka jartzea dauka. Horretarako, estatu kideek aplikatu ahal izango dituzte suzko arma eramangarrietarako probako puntzoiaren elkarren onarpenerako Hitzarmeneko —1969ko uztailaren 1ekoa— xedapenak.

b) Zenbakizko kodea nahiz kode alfanumerikoa duen beste edozein marka bereizgarri eta erabilerraz jartzeko betebeharra ezarriko dute, estatu kide guztiak armen fabrikazio-herria erraz identifikatzeko modukoa.

Suzko armaren funtsezko osagaietako batean jarri beharko da marka, hura suntsituz gero suzko arma erabilezin bihurtzea dakarren osagaiaren batean, hain zuzen.

Munizio-pakete txikiago guztietan zehaztu beharko dira fabrikatzailearen izena, lotearen identifikazio-zenbakia, kalibrea eta munizio-mota, jarritako markan. Horretarako, suzko arma eramangarrietarako probako puntzoiaren elkarren onarpenerako Hitzarmeneko —1969ko uztailaren 1ekoa— xedapenak aplikatu ahal izango dituzte estatu kideek.

Bestalde, suzko arma bat estatuaren izakinetatik erabilera zibilera igarotzen denean behin betiko, estatuek ziurtatu beharko dute suzko arma horri transferentzia egin duen herrialdea identifikatzeko moduko marka bereizgarri egokia jartzen zaiola.

3. Estatu kide bakoitzean armazain jarduteko baimen bana eskatu beharko da, eta baimena eman aurretik armazainaren zintotasun pribatu eta profesionala eta gaitasuna kontrolatuko dira gutxienez. Pertsona juridikoen kasuan, enpresa zuzentzen duen pertsonari egingo zaio kontrol hori.

4. Estatu kide guztiak sortu eta mantendu beharko dute eskumeneko agintariei Zuzentarau honetan aipatzen diren suzko arma guztiak erregistratu beharreko fitxategietan sartzeko aukera ematen dien sistema zentralizatu edo deszentralizatu batean oinarritutako datu-fitxategi informatizatua, 2014ko abenduaren 31 baino lehen. Datu-fitxategi horretan datu hauek sartu eta hogeitun urtean gorde beharko dira, gutxienez: suzko arma-mota, marka, modeloa, kalibrea eta serie-zenbakia, eta hornitzailearen eta erosle edo edukitzailearen izena eta helbidea.

Armazainek, jardunean diharduten bitartean, erregistro bat osatu beharko dute Zuzentarau honetan aipatzen diren suzko arma guztien irteera eta sarrera guztiekin. Bertan, suzko armak identifikatzen eta lokalizatzen laguntzen duten datuak zehaztu beharko dituzte: suzko arma-mota, marka, modeloa, kalibrea eta serie-zenbakia, eta

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

hornitzailearen eta erosle edo edukitzailearen izena eta helbidea. Beren jardunari utzitakoan, erregistro hori fitxategiez arduratzen den eskumeneko agintaritzaren esku (lehenbiziko lerrokadan zehazten da) utzi beharko dute armazainek.

5. Estatu kideek ziurtatu beharko dute suzko arma guztiak uneoro beren jabeekin lotu daitezkeela. Dena den, D kategorian sailkatutako suzko armen kasuan, estatuak armak lokalizatzeko neurri egokiak finkatuko dituzte, 2010eko uztailaren 28tik aurrera. Adibidez, 2010eko uztailaren 28a eta gero merkaturatutako suzko armak uneoro beren jabeekin lotzeko bidea finkatu beharko dute 2014ko abenduaren 31tik aurrera.».

3) Artikulu hauek gehitu dira:

«4 bis artikulua

3. artikuluan agindutakoa alde batera utzi gabe, estatu kideek lizentzia daukaten pertsonen bakarrik utziko diete suzko armak eskuratzen eta edukitzen. C eta D kategorietako armen kasuan, aldiz, arma horiek eskuratu edo edukitzeko berariazko baimena beharko da estatu bakoitzeko barne-zuzenbidearekin bat etorritz.

4 ter artikulua

Artekarien jarduerak kontrolatzeko sistema bat sortzeko aukera aztertuko dute estatu kideek.

Sistema horretan neurri hauek finkatu daitezke:

- a) norberaren herrialdean jarduten duten artekarien erregistroa eskatzea;
- b) artekari jarduteko baimen edo lizentzia bat eskatzea.».

4) 5. artikulua ordez testu hau jarri da:

«5. artikulua

3. artikuluan agindutakoa alde batera utzi gabe, arrazoi sendoak izan eta baldintza hauek betetzen dituztenei bakarrik utziko zaie suzko armak eskuratzen eta edukitzen:

- a) 18 urte beteak izatea, suzko armak ehizarako edo kirol-tiraketa egiteko eskuratzen (baina ez erosten) direnean izan ezik. Kasu horietan, 18 urtetik beherakoek gurasoen baimena izan beharko dute, haien edo armak edukitzeko edo ehizan ibiltzeko baliadun baimen baten titularra den heldu baten zaintzapean egon beharko dute, edo trebatzeko zentro baimendu batean jardun beharko dute;
- b) ez dute arriskutsuak izan behar ez beren buruarentzat, ez ordena nahiz segurtasun publikorako. Arriskutzat hartzen da doluzko delitu bortitz batengatik zigorrik jaso izana.

Baimena emateko baldintzetako bat betetzeari utziz gero, suzko arma edukitzeko baimena kendu ahal izango dute estatu kideek.

Estatu kide batek bere lurraldean bizi direnei EBko beste estatu batean eskuratutako arma bat edukitzea galarazteko, arma hori bere lurraldean eskuratzea debekatuta izan beharko du estatu horrek.».

5) 6. artikuluan lerrokada hau gehitu da:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

«Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 97/7/EE Zuzentarauko —1997ko maiatzaren 20koa, urruneko kontratuetan kontsumitzaileak babesteari buruzkoa (*)— 2. artikuluan zehaztutako moduan, suzko armak eta haien pieza eta munizioak urruneko komunikazio-tekniken bidez eskuratzea baimenduta dagoen kasuetan, eskuratzeko bidea zorrozki kontrolatu beharko dute estatu kideek, armazainen kasuan izan ezik.

(*) L 144EO, 1997/06/4koa, 19. or. Azkenik 2005/29/EE Zuzentarauak aldatutako Zuzentaraia (L 149 EO, 2005/06/11koa, 22. or.)».

6) 7. artikuluan paragrafo hauek gehitu dira:

«4. Suzko armak eskuratzeko eta edukitzeko baimena lortzeko baldintzak betetzen dituztenei, hainbat urtetarako lizentzia emateko aukera aztertu ahal izango dute estatu kideek (dagokion baimena eskuratu eta gero), baldintza hauek betearaziz, betiere:

- a) transferentzia guztiak eskumeneko agintariei jakinaraztea;
- b) pertsona horiek finkatutako baldintzak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzea aldiro-aldi, eta
- c) estatu bakoitzeko zuzenbidean armak edukitzeko finkatutako gehieneko mugak betetzea.

5. Estatu kideek dagozkien xedapenak onartuko dituzte, estatu bakoitzeko zuzenbidearekin bat etorritz, 2008ko uztailaren 28an B kategoriako suzko armetarako baimenak indarrean dituztenek berriz ere eskatu behar ez izateko beren esku dauzkaten C edo D kategorietako suzko armetarako baimena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/51/EE Zuzentaraia (*) indarrean sartzearen ondorioz. Dena den, hortik aurrera C eta D kategorietako suzko armen transferentziarik egiteko, bere estatuko zuzenbidearekin bat etorritz emandako armak edukitzeko baimen berezia izan edo lortu beharko du hartzailak.

(*) L 179 EO, 2008/07/08koa, 5. or.».

7) 11. artikuluko 3. paragrafoko bigarren lerrokadaren ordez testu hau jarri da:

«Transferentzia egin aurretik, 2. paragrafoko lehen lerrokadaren zehaztutako datu guztiak jakinarazi beharko dizkio armazainak transferentzia egiten den estatuko agintariei. Agintari horiek egingo dituzte dagozkion ikuskapenak armazainak emandako informazioa transferentziaren benetako ezaugarriekin bat datorrela ziurtatzeko, eta transferentzia-lekura bertara joango dira behar izanez gero. Armazainak behar besteko denborarekin eman beharko du informazioa.».

8) 12. artikuluko 2. paragrafoko lehen lerrokadaren ordez testu hau jarri da:

«1. paragrafoan agindutakoa gorabehera, ehiztariek (C eta D kategoriei dagokienez) eta kirol-tiratzaileek (B, C eta D kategoriei dagokienez) suzko arma bat edo gehiago eduki ahal izango dituzte baimenik gabe estatu kideetan barrena bidaiatzean, daramatzaten suzko armak aipatzen dituen Europako suzko armen txartela baldin badute eta beren bidaiaren zergatia azaltzen baldin badute, doazen estatuko ehiza nahiz kirol-tiroko jardueretarako gonbidapenen bat edo bestelako frogaren bat erakutsiz, esaterako.

Estatu kideek ezin dute kanonik edo tasarik kobratu Europako suzko armen txartela onartzeko.».

9) 13. artikuluko 3. paragrafoaren ordez testu hau jarri da:

2008/51/EE Zuzentaraia (EBren Egunkari Ofiziala, L 179/5, 2008/7/8koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

«3. Zuzentarau hau ongi aplikatzearen, estatu kideek informazioa trukatu dute aldiro-aldiro. Horretarako, artikulua aplikatzen laguntzeko informazioa trukatzeko talde bat eratuko du Batzordeak, 2009ko uztailaren 28a baino lehen. 11. artikuluko 4. paragrafoan finkatutako betebeharrak betetzeko eta informazioa jaso eta bidaltzeko eskumeneko agintariak zein diren jakinarazi beharko diete estatu kideek gainerako estatuei eta Batzordeari.»

10) Artikulu hau gehitu da:

«13 bis artikulua

1. Batzordeak komite baten laguntza izango du.

2. Atal honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiko —1999ko ekainaren 28koa, Batzordeari dagozkion eskumenak gauzatzeko prozedurak finkatzen dituena (*)— 5. eta 7. artikulua aplikatu beharko dira, eta 8. artikuluan esaten dena bete beharko da. 1999/468/EE Erabakiko 5. artikuluko 6. atalean hiru hilabeteko epea aipatzen da.

(*) L 184 EO, 1999/07/17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak aldatutako Erabakia (L 200 EO, 2006/07/22koa, 11. or.).»

11) 16. artikulua ordez testu hau jarri da:

«16. artikulua

Zuzentarau honi jarraiki estatu bakoitzean onartutako xedapenak urratzeagatik jarri beharreko zigorrak finkatuko dituzte estatu kideek, eta beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte zigorrak betetzen direla ziurtatzeko. Zigor horiek eraginkorrak, neurrizkoak eta eragozleak izan behar dute.

12) 17. artikulua ordez testu hau jarri da:

«17. artikulua

Zuzentarau hau aplikatzearen ondorioz sortutako egoerari buruzko txostena aurkeztu beharko die Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, 2015eko uztailaren 28a baino lehen, eta, behar izanez gero, dagozkion proposamenak egin beharko ditu txosten horretan.

Batzordeak ikerketa bat egin beharko du suzko arma bi kategoriatan (debekatuak eta baimena behar dutenak) bakarrik sailkatzearen alde on eta txarrei buruz, eta txosten bat aurkeztu beharko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, 2012ko uztailaren 28a baino lehen, sailkapena sinplifikatuz produktu horietarako barne-merkatuaren funtzionamendua hobetzeren.

Batzordeak suzko arma erreplikak merkaturatzeari buruz txosten bat egin eta emaitzak aurkeztu beharko dizkie Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, 2010eko uztailaren 28a baino lehen, produktu horiek Zuzentarau honen aplikazio-esparruan sar daitezkeen eta sartzea komeni den erabakitzeko.

13) I. eranskina honela aldatu da:

a) I. zatian, lehen gidoiaren ordez testu hau jarri da:

«— suzko arma guztiak, Zuzentaruako 1. artikuluan zehaztutako moduan,»;

2008/51/EE Zuzentaruua (EBren Egunkari Ofiziala, L 179/5, 2008/7/8koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

b) III. zatia honela aldatu da:

i) a) idatz-zatiaren ordez testu hau jarri da:

«a) suzko armak betiko erabilezin bihurtzea, eta funtsezko osagai guztiak berriz ere erabiltzeko moduan ordezkatu, leheneratu nahiz aldatu ezinak izateko moduan erabilezin bihurtzea;»,

ii) lehen lerrokadaren ondoren lerrokada hau gehitu da:

«Eskumeneko agintariak beharrezko xedapenak onartuko dituzte a) idatz-zatian aipatutako armak erabilezin bihurtzeko neurriak egiaztatzeko, suzko armetan egindako aldaketekin armak betiko erabiltezinak direla ziurtatzearen. Egiaztapen hori egitean, suzko arma erabilezin bihurtu dela adierazten duen ziurtagiri edo agiria luzatuko dute estatuak, edo hori adierazten duen marka bat jarriko diete armei, ondo ikusteko moduan. Suzko armak erabilezin bihurtzeko arau eta teknikei buruzko jarraibide komunak argitaratuko ditu Batzordeak, Zuzentarauko 13 bis artikuluko 2. paragrafoan adierazitako prozedurarekin bat etorritik, suzko armak behin betiko erabilezin bihurtzen direla ziurtatzearen.».

2. artikulua

Barne-zuzenbidean sartzea

1. Estatu kideek beharrezko xedapenak (legezkoak, erregelamenduzkoak nahiz administratiboak) onartu behar dituzte 2010eko uztailaren 28a baino lehen, Zuzentarau honetan agindutakoa betetzeko. Berehala jakinarazi beharko diote Batzordeari xedapenok jasotzen dituen testua.

Estatu kideek xedapen horiek onartzen dituztenean, Zuzentarau hau aipatu beharko da xedapenotan edo erreferentzia egin beharko zaio ofizialki argitaratzen direnean. Estatu kideek erabakiko dute erreferentzia hori nola egin.

2. Estatu kideek Batzordearen esku jarri beharko dute Zuzentarau honek araututako esparruaren barruan onartzen dituzten barne-zuzenbideko oinarritzko xedapenak jasotzen dituen testua.

3. artikulua

Indarrean sartzea

Zuzentarau hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeiei egunera sartuko da indarrean.

4. artikulua

Hartzaileak

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon emana, 2008ko maiatzaren 21ean.

Europako Parlamentuaren izenean, presidentea: H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean, presidentea: J. LENARČIČ